

## ezagutzen al duzu Donostia?

### Errekalde

Errepidez Lasarte aldetik etorriaz eta Teresategiko aldapa pasa ondoren gure Donostiako udal-dermian sartzen gara; errepidearen eskuin aldean zenbait industri-komertzio eraikuntza topatzen ditugu, eta metro eskas batzuk aurrerago auzo txiki bat hiruzpalau etxerekin: hau da Errekalde, 1860. urtean Errekalde Lugaritz auzoko 106 baserrietatik bat zen, auzo bereko hegoaldean kokatua, Hernani udal-dermioarekin muga-mugan (gaur Hernanik ezezik Lasarte herri berriak ere auzo txiki honetan muga egiten du Donostia eta Hernanirekin).

Baserriak ezezik, garai haietan Errekalden «telleri» handi bat ere bazegoen eta bertan teilak eta adreiluak egiten ziren; aktibitate handiko lekua eta pasadizu leku bat ere izan da beti Errekalde. Urteekin bide berria egin zen Hernanira, kostako trenbidea egin zen, Tolosarako tranbea, zenbait industria... eta Errekaldeko baserri zaharrak desagertu egin ziren, «telleria» ere desagertu zen, eta haien ordeaz gaur ikusten dugun auzotoxoak hor dirau zutik. «Petit-katan» bere taberna zahar xarmantarekin. Orain lehen bezala, pasadizu lekua izaten jarraitzen du Errekalde.



ARGAZKIA: XIMON

1860. urtean  
Errekalde  
Lugaritz  
auzoko 106  
baserrietatik  
bat zen, auzo  
bereko  
hegoaldean  
kokatua,  
Hernani udal-  
dermioarekin  
muga-mugan

## Donostiako kantutegia

J.I. ANSOARENAK proposatua



### Baionetak erakutsi

Entraban en las casa,  
batean zazpi, zortzi,  
la primera maniobra:  
baionetak erakutsi.  
Pidiendo el dinero,  
bestela bizia hautsi.  
Ninguno creímos,  
mundo honetan bizi.

Escena horrorosa,  
kalean ikusi nik.  
A una infeliz niña  
Baionetaz josirik.

No quiero referiros  
zenbat ikusi nik,  
por no dejar al mundo  
eskandalizaturik.

Desgraciados habitantes,  
deskonsolaturik,  
clamaremos al cielo  
zabaldurik besoak.  
Sin duda lo merecen  
gure pekatuak,  
dejemos pues en olvido  
pena pasatuak.

**KOMENTARIOA:** 1813.ko abuztuaren hogeita hamaika abaztu ezineko eguna da Donostiaren historian. Portugal eta Britania Haundiko Armadek hiria inguratuta zeukaten eta erasoari ekin zioten. Zurriolako partean zenden kanoiek Bretxa, zuloa egin zuten harresietan (gaur egun Bretxa merkatua dagoen lekuan) eta handik sartu ziren, sarraskiüzugarria eginez.

Gertakari honen inguruan Manuel Sagasti donostiar musikariak (1796-1819) abesti hau sortu zuen eta berehala zabaldurik zen. Musikari etorkizun handia zuen Sagastik, baina hogeita hiru urtez hil zen.

Sagastik ez zituen tankera honetakoak bakarrik sortu. Sarraski berberak Nocturno y Misa de Difuntos sortzeko aukera eman zion. Hala ere, azkeneko esaldia donostiar kaskarintasunaren adierazle da: «Dejemos en el olvido, pena pasatuak».

JOSU TELLABIDE